

MASIAKETA ETA KRITIKA

ZER DUGUN “ORIXE”REN ALDE. EUNGARREN JAIOTZ URTEAREN MUGAN

Joxe Azurmendi idazle emankorrek, lenago “Orixe”ren aurka egin zuan liburua aski ez zala-ta... orain beste bigarren batekin osatu digu “Orixe”ren alde itza atereaz.

Jakiña da, guztiok, txiki ta aundi, alde onak eta alde txarrak dituguna. Akatsikik gabeko iñor gutxi izango da mundu ontan.

Baiñan iritzia ematen asita, atzo gaizki esaka jardun genduenarengatik, biaramonean gai ura bera ontzat artu ta goraiapatzea zeruraño igoaz, ez da “dendun dagon gizon baten egitekoa; oreka galdu duanarena baizik. Buruz nastuta ta ideaiaz gañezka dabillanak orrelako kontradizio, ta aitzi-esaeretan erortzen da, zimardika irristara ibilli ta gero.

Onela azaltzen zaigu Azurmendi urduria, Orixé’ri opa dizkion bi liburuok elkarrekin alderatzen ditugunean.

Aurreneko liburuan: “*Zer dugu Orixé’ren kontra*” zer nolako destañez mintzo dan ikusi dugu. Onek idatzi zuan gauza guztietan itsu-itsuan jarrai bear diogunik, nere motzean bein baño geiagotan esan nion maisu aunditztat neukan Mikolas adiskideari. Aren lanak adimenaren argitara bereizi ta neurri zuzenez epaitzea kritikarien arlo zail bezain bearrezkoa da. Azurmendi’k bururatu diguna, orde arinkeriaz ezik griña gaiztoz emetua dagoala dirudi.

Egia, nere ustez, nolako dan erakustera dijoakizute nere iruzkin auxe. Bear bada itzak latzegi ta leundu gabe aterako zaizkit baiñan iñolaz ez kritikari zorrotza iraintzeko asmoz, Orixé bere osoan, ezur eta mami neurtzeko baizik.

Au garbi jarri ondoren, nere poz eta atsegiña aitor bear dizkiot Azurmendi bizkorrari, bere lenengo liburuan “Orixe”ren kontra esandakoak ahantzirik, bigarren ontan eskeintzen dizkion lore-sorta ta goresmen aintzagarriengatik. Iñor gutxik goratu duala Orixé ark aña esango nuke. Ez Aita Estefania’k ez Mokoroa’k, ez Mitxelenak biok ez beste iñortxok. Azurmendi’k Orixé “subrosae” koroaturik ozenki aldarrikatzen du: “POETA DA! POETA AUNDI BAT! Euskal Poesi era bat, era berriak sortu dizkio. Eta ez da aspertzen aren nortasun bortitza, aren trinkotasuna gorapaitzen. Aigan, lenengo liburuan esan-lakoaz damaturik onela mintzo da: “Lirikorik oberenetakoa ezik orijinalenetakoa agertzen zaigu”. Eta gero onoko au: “Hazaldi onek Orixé gutxietsi duanak” estimatzen ikasiko duten ustea...

Beste toki batean aitormen auxe arkitzen dugu: “Orixe’k euskera daki” bai arranepola! nik ez bezala! ta edozein izkiñetan sekulako sorpresa ematen digu. Egia benetan, erdipurdiko ainbeste idazleen artean.

Orixe'ren "Euskaldunak" poeman agertzen diran gizakiak, "motelak totalak dirala esan zuanari Azurmendi'k aipatzen ditu ainbat kristau mota bizitasunez beterik: Pontxo, Mikela Borda, basurde-eiztariak, abar eta abar. Eta ala dio: "deskribatzaile bikaña, bikañik baldin ba'da. Koldo Mitxelena'k bayezten duana esanez: Poema dala "gure artean ondu dan ederlanik larriena".

Zer geiago esan liteke? Bai alajaña! Azurmendi'k "Euskaldunak" poematik asi ta Santa Kruz apaiza" kontakizunaraño azterketa luze ta oproa egiten digu.

Orixe'ren barren bultzadak zulatu naiez aren asmo, gogai, joera, Ots! Ideolijiaren gibel-erriak atera nai dizkio.

Poema'n baserri giroa besterik ez zuala kantagai aukeratu akar egiten dienai arte ta antze lanaren legeak oroi araztea on litzake: Concentrar una actuación y sus personajes y el desarrollo en lo esencial sin extenderse a abarcar lo secundario que debilitaría su fuerza de expresión". Ez dezake iñork uka, euskal izatearen dantasun ta mamia artzaintza, nekazaritza, baserritik zetorkiola. Aur erantzean zer izanen dan... "geroak esango du. Erri-poema guztietan gertatu dana: Mireio, Martin Fierro, Canigo eta abar.

Sakonki ta literatura jakintzaz ondo jantzirik arakatu ditu Azurmendi'k Orixe'ren olerkigintzaren xeetasunak.

Erretorikaren arauak ondo ezagutzen ditu naski: "tropo" dira lakoak, gonbarazio, similitud, alderatze, Metonimia, Metalepsia, Synedoke ta "klasikoek erabil oi dituzten" izengoiti "bitxiak".

Literato galanta dala Orixe dio Azurmendi'k. A zer nolako eztabaidak izango litukean biok! Eta ez asarrerik gabe! ¡Entzutekoak izan bide ziran! Ni ere ez nator bat, Lenin eta Tolstoi aitatuta gure "Orixe'ri eman nia dion kideasunarekin.

Bertako arki zezakean berdintasun zeatzagorik. Eta guztia esateko: Euskaldunak" poema "basarritarkeria" gaitzizeenez arbuya duteneoi beroeik dira nardagarri ta gaizki jaiotako seme.

Ondo azi eta ezitakoak ez dugu lotsa bera esatez geienon aiton-amonek basarritar izan zirana. Basarria izan bide da euskal izkuntzaren eskola ta seaska. Kaletarrok ez dute galzorian jartzea besterik egin. Alare, pozik aitor bear dut oraingo belaunaldiko gazteek "iriko giroan euskera landu ta bide berritan sartzen ari dirala. Baiñan aria, erro ta sustraiak nundik datorkien ba-dakite. Eta an dute kulturaz ausarki ornitua egonarren utsune batzuk izatea ez da arritzekoa. Zorionez, gaztea dugu oraindik eta laister ikasiko ditu peitu zaizkionak.

Azkenekoz, barkatuko al dit nere buruaz mintzo nadin eta beste zenbait akar txiki egitera ausartzen ba'ntzaio.

Auen artean bat, nik "Oritxe'taz egin ditudan lanik ez ez aipatzea. "Euskaldunak" poemaren kantu osoak nekez biltzen ibilli ta gero, oker eta guzti, neronek argitaratux nuala, jakiña da.

"Euskaldunak" poemaren erdal "Compendio" dalakoa, orobat onako pekatari onek taxutu ta azaldu zuala... Orixe're eskeñitako "OMENALDI" liburuan eskua sartu nuala, geeigi bear ba'da...

Azurmendi'k "Jakin" aldizkarian San Martin jaunarekin izan nuan eztabaidatxoaz gaigiroki, bederen aipamena egiten du. Baiñan, gai artaz nik "Bilbo'ko Gran Enciclopedia Vasca'n argitaratutako: "Elogio razonado de "Euskaldunak" lanaren berri ez digu ematen.

Geroztik “Auñamendi” argitaldari etxeak apain eta edergarriz azaldutako “*Orixe’ren Euskaldunak Poema ta Olerki guziak*” laguntzen ez nintzan atzean gelditu. Eta ondoren, Auñamendi’berak Euskaldunak poemaren argitalpen merke bat egin zezan, bultza niola aurreko orrialdean garbi jarria dago.

Nere lan oiek gutxi erakutsi diotena Azurmendi’ri ba-dakit. Orregatik beste zerbait geiago erantsi nai diot: 1928-1962 urte bitartean, gaurko idazleetan Orixe nik baño geiago ezagutu zuanik ez dagoala. Gerra aurretik, gerratean eta ondoren...

1928-1932 bitartean, Lizardi bizi zalarik elkarrekin ibilliak gaituzu. Batik bat Oresa’ra bizi izatera etorri zala, astean bein edo bitan gure etxean genduen bazkaldar. Eta 1939,tik aurrera Doniban Lohitzun’en erbesteratuta elkarrekin bizi izan giñan.

Ameriketara joan eta an igaro zituan urteetan ez genduen eten gure arteko ar-emana. Eun ta geiago eskutitz gorderik dauzkat, apika egun batez argitaratuko diranak. “Orixe, Lizardi, Aita Zaitegi.. eta beste euskeltzale askoren gora-beraren bilduma irakurgarria izango litzake. Baita ere Jesuitekin izan zuan auzi larnta arazoaren agiriak jasorik dauzkat eta illunpean egotea dagokie.

Beraz isil nadin gaurkoz. Azurmendi’k Orixe’ri egin dizkion goresmen merezidunekin bat natorrela ikusi duzute. Aren esana ezabatzeke nere argurioak aski izango diralakoa nago.

Beste atal batean Joxe Azurmendi asper eziñak Orixe’ren bertsozintzaz diardu, zer nolako puntu, rima, neurri ta abar gogoko zituan azpimarkaturik. Gai ori ikututakoan arritu gaitu ez duala aitatzzen, D. Manuel Lekuona’k “Orixe’ren” “Omenaldi liburuan” ark metrikaz idatzitakoa. Lan ortan, euskal neurtitzen legeak iñon baño obeto aztertuak bait daude. 35 orrialde bete-beteak ez ezagutzea utsegite aundia dala derizkiot Orixe’ren kritikari batentzat. Erri-literaturan Lekuona zarra maisurik aundienetakoa dugu ta oben larria aren alde zerbait esan nai danean ez “metrika” ori gogoan artzea. Irakurria ote du?...

Aitzitik, Azurmendi “begi-luzeak, Orixe’ren mistika bertsoen sakontasunari ederki antzeman dio. Eta egia da, benetan egillearen “pitxi”, agian, baloitsuenak dirala askoren uestez.

Erliziozko gaiari gagozkiola, berriz, Azurmendi’k ez diola aren itz lauuko lanei garrantzirik ematen. Eta ene irudiko, Orixe’ren “Urte guziko Meza Bezperak” liburu, eder jori ta aberatsa euskeraz idatzi izan dan bikañenetakoa da. Nere iritzi apalean, Lizarraga, Axular, Mendiburu ta aien kidekoak egin zituenak baño obea.

Zer esan bear zaio, alabaiña, gaur egun “erlijioa”k ez dituala gazteak interesatzen aitortzen duan “erlijioso” bati? Liturjia’ren aldaketa izan dala-ta “Meza-bezperak” liburua baztertu nai lukeala dirudi. Berak uste baño irakutzaile ugarigoak dituala gertatuko ba’litz? Askotxi dira egunero eskuan darabilketenak, fedearen arrobi ezik, bai itz lauz eta bai itz neurtuz euskal izkuntzaren mugagabeko erakusle dalako. Ba- ote dugu malla ortara irixten dan beste euskal libururik?

Beste makar bat Azurmendi’ren begietan, Orixe’k “Eusko-Gogoa” eta “Gernika” aldizkarian idatzitakoak “doi-doi” edo baterez, ikusten utzi ez diona.

“On eta Eder” estetikaz diardun lan paregabea; eta “Gernika” agertutakoak gizalegeari buruz eredutzat ar bear liraken euskal-prosaren “antolojia

puskak ditugu. Kritikariak jakituriz Azurmendi goierritar gaztea ereille aspergaitza dugu, buru-lanetan zaildua. Eta onoko kaletar agure au argaldu zamarra ark landutako soro guztiak jorrazteko. Nere atxurketa ez litzake beñere aski izango Orixe'ren inguruan utzi dituan barrabas-belarrak erabat erauzteko.

Orrengatik indar ta jakituri aundigoen gizon argituetan babestu ditut nere iritzi-miritziak. Lenago aitatutakoaz gañera Literatura-maisu orokorra dan Giovanni Papini'ren izena agertu nai dut emen. Onen "La spia di mundi" irakurriaz Virjilio'k Orixe'rekin zer ikusia ba-daukala; eta Euskaldunak" poema ez dala noiz naiko ta nun naiko erti-lanen artean lotsagarri gelditzen.

Orixe antziñate-lagun, jainkozale, eskuitar ote dalakoan gutxiestea ez da bidegabekeria besterik. Zer bada? aurrerakoi, berrizale ta ezkertar agertzea aski al da Parnaso'ko gallurrera igotzeko? Ustekizun izuna. Jazinto Verdaguer apaiz eta baserritarrak katalan izkuntzari eman zion mallarik goitarrena. Eta gure artean ere, uin berriko poeta kaletarrak nekez elduko dira "Euskaldunak" poemaren bikaitasunera. Arrazoiz dio J. M. Aranalde "Orixe" zanaren illobak, "petral zamar jokatu dutela "progresita" izenekoak Nikolas Ormaetxeari akatsak billa nairik. Onen euskerak ez du gaurko balio ta ezdala dana esateko duin. Gerra ondo umeez ezin erabilli dezatekeala guerra aurreko euskerarik. "Aurreiritzi utsalak benetan: Gaitzerdi Azurmendi'k aotorpen au egiten duala: "Guztiok gera zerbaitetan Orixe'ren zordun". Eta areago len libirian Poema epikoaren kritika garratza egin ondoren, azkenerako "Euskaldunak" bertsoaldi zoragarria gorapaitzen. "Letari" kantuagatik esandako sinisgaitz zitzaidan; "poema guztiko txarrena? "Otoitza obe legokela kampoan, apokaliptikoa eta abar... praile batentzat desegokiak; kritikaria batentzat motzak, ikus-begiaren aldetik. Ez dizkiola perspektiba —sozial-ekonomikorik arkitzen. Ikusten jakin bear, gizona Bere neurrian eta gaiak eskatzen duan arabera.

Besterik da esatea euskera gaurkotzeak problema asko dituala ta gaitzak, naski. Egia da. Eta ez dira errezkeri utsez erabakiko. Are gutxiago oraindano egin dan lanari jo ta pasa egin eta bazterturik utzia. Muturka ta zapuzka mordolokeira geiago "radikalizatuko dutela oiue egiñez okerrago oraindik.

Ori litzake biderik txarrena.

Orratiokan, ainbeste kezka artean Azurmendi'ren bayezpen batek pozkarioz bete nau: "Orixe'ren aunditasuna errealismoan dago ta aren bizitasuna begietatik dator".

Orixe'ri buruzko eztabaida ontan; kontra ta aldeko jarduna amaitzera noakizute. Ez guztia esana gelditu dalako, aspergari egin ez zaitzaten baizik. Garrantziko auzia. Funtsean bat gatoz: Orixe'k batasunaren bearra erakusten digula.

Eta Nikolas Ormatxea, aundiak egindako lan arrigarria guztiona dala.

Azurmendi'k nunbait aitortzen duan arabera": "zer eta gazte uste dugun baño batago gara" agian".

Eta beste leku batean: "Orixe literato paregabea da. Nolako erreztasuna! Frase zail bat bakerrrik ez! Zer maisu dotore!

(1) Askok daki! Aren euskera txukujna! Garraizkion bada!

Zer goresmen aundiagorik egin genezake?

Antonio M.^a de Labayen

(1) Orixe'ren prosak duen freskura ta bizitasuna ez dut uste aren aurreko eta ez atzeko inork atera duenik"